

ZM

ZORROTZ MORROTZ

54 78KIA 2018KO AZAROA



FERNANDO, ROSA,
ASIER, INIGO ETA NOELIA
AHOBIZI ETA BELARRIPREST

NAGORE, ITXASO ETA YAIZA EUSKARABENTURAN

Allianz 

Menfer Insurance Group S.L.

Geltoki bidea 1, behea
48013 Zorrotza

Tel. 946551773
Sakelakoa. 691218922

E-mail: valerio.merino@allianzmed.es

Zure Etorkizunak Behar Zaitu!

Sustapen honen
barruko planen
arrisku-maila
maila txikiaren eta
oso handiaren
artekoa da.

(Zure Etorkizunak
BASKEPENSIONES
Behar Du)



Kutxabank, SA. Kale Nagusia, 30-32, 48009 Bilbo. IFK: A95653077. Bizkaiko Merkataritza
Erregistroan inskribatuta. 5226 Tomoa, O Liburua, BI-58729 Orria, 1 Folia, 1 Inskripzioa.

kutxabank
k

BASKEPENSIONES

BANAKAKO BGAEa

Kutxabank SA Bazkide sustatzailea.

Kutxabank Gestión IKESK SAU Ondare Kudeatzailea.

Etorkizunerako
planetan liderrak.



...Imajinatzen duzu auzoa
merkataritzarik gabe?

ESKAINTZARik ONENA ZORROTZATik IRTEN BARIK

**Berton
kontsumitu**



Ondarea zaindu behar dugu

Zorrotzak behar duen hobekuntza tekniko eta tokikoaren alde jarrizten du lanean Auzo Elkarteak. Jada urteetan lortu dugunarekin batera (Azoka parkea, kiroldegia, frontoia estaltzea, eta abar luzea) aparkalekuak, espaloien gizatiartzea, gune berdeak, umeen jolasentzako eremuak eta beste hainbat aldarrikapen luzeren zerrenda iraunkorra dugu mahai gainean etorkizunerako. Osasuna, hezkuntza, adinekoak, gazteak eta umeak aspektu estrategikoak dira eta horren gainean lanean ari gara etengabe. Era berean, ez dugu elkarbizitza eta kutsadura ahazten.

Baina badago beste errealitate bat ahaztu ezin duguna: historikoa. Ezin dugu gure auzoko historia ahaztu eta horrekin batera Zorrotzako ondarea: Alzola zubia, Talleres de Zorroza eta nola ez, Molinos Vascos eraikina. Garrantzitsua da gure ondarea ezagutzea eta zaintzea. Hemengo jendearekin batera, ondarea da Zorrotza bizi, eta batez ere, elkar bizitzen dugun auzoa bihurtzen duena.

Hurrengora arte!



HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mezu elektronikoa bat **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora, gaiaren laukian "harpidetza" jarritz



Zorrotzako kultur aldzkaria
54. zenbakia. 2018ko azaroa

Argitaratzen du:

Zorrotzako Euskal Txokoa

AEK euskaltegia

Zalbidea, 7 behe

48013. Zorrotza. Bilbo

Emaila: **zmorrotz@gmail.com**

f facebook.com/ZorrotzMorrotz

@zorrotzmorrotz

Koordinazioa: Aitor Marín

Diseinua eta maketazioa:
amc diseinua

Erredakzioa:

- Ibai Barrios
- Ainara García
- Igor Gutiérrez
- Aitor Marín
- Naroa Peña
- Iratze Pérez
- Zuriñe Vila

Zuzenketak: Iñigo

Laguntzaileak:

- Karlos Rodríguez
- Manu Cobo
- Asier Urkiza
- Saúl Kurto

Inprimaketa: Arin Graf



Zorrotz Morrotz aldzkariak Bilboko udalaren diru-laguntza jaso du baina ZM da edukaren erantzule bakarra



**FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA**

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tfno. 94 441 61 46

**KRISTAL
PROGRESIBOA
DOAN**

* MONTURA BAT EROSTEAN,
KRISTAL BAT DOAN.

ibarraetaluxury
OPTICA ★



RPS: 213/18

Euskaraldia Zorrotzara ere iritsiko da

Igor Gutiérrez

Zorrotzak beti egin du euskararen alde. Oraingo honetan, Euskaraldian, alegia, Euskal Herri osoan egingo den euskarazko ariketa sozialik handienean ere parte hartuko du. Azaroaren 23tik hasi eta abenduaren 3ra arte, zorrotzarrok 11 egun euskaraz bizitzeko erronkari lotuko gaitzaizkio: ahobizi rola aukeratu dutenek, euskarari eutsiko diote eta belarriprest aukeratu dutenek, berriz, euskara ulertuta nahi duten hizkuntzatan egingo dute, euskaraz zein erdaraz. Helburua ohitura aldaketak

sortzea da, hots, gero eta elebidunago den gizarte honetan, euskaraz egiten dutenen eta egin ez baina ulertzen dutenen arteko komunikazioa natural bilakatzea.



Gure auzoa Bilboko beste auzoekin koordinatuta dago eta abenduaren 1ean, antolatuko dira Euskaraldiaren ekitaldiak gurean. Izena emateko hiru bide daude: aek euskaltegira etorrita, www.euskaraldia.eus webgunetik edo auzoan jarriko diren informazio mahaietan. Animatu!

Gaitzezpena auzoan izandako eraso matxista berria salatzeko



Igor Gutiérrez

Pasa den urriaren 15ean indarkeria matxista kasu berri batekin esnatu ginen Zorrotzan. Emakume haurdun batek bere bikotekidea salatu zuen hark bultzatu eta lurrera bota zuela baieztatuz. Gizona atxilo hartu zuten epailearen aurrera eramateko

eta emakumea, berriz, ospitalera eraman zuten, kalterik ote zuen aztertzeko. Biharamunean, Taldeen Koordinakundeak deituta, elkarretaratzera burutu zen Untziola eta Fray Juan kaleetako bidegurutzean, erasoa gaitzesteko eta biktimari elkartasuna adierazteko.

FEVEko trenbidean izandako bi gertakari berriek pasabidearen arriskua agerian utzi dute beste behin ere

Zorrotz Morrotz

Urriaren 29an Bilbobuseko 18. linearen autobus bat trenbidean harrapatuta geratu zen eta barrera batek ibilgailua jo zuen. Zazpi Landatik jaisten zen beste autobus bati maniobra errazteko geldirik zegoenean, barre-
rak aktibatu ziren eta istripua gertatu zen.

Handik egun gutxira, azaroaren 1ean hain zuzen ere, eguerdian tren bat igaro ostean, pasabideko barrerak jaitsita gelditu ziren



ordu erdiz baino gehiago. Kotxe ilara luzeak sortu ziren eta autoak zein oinezkoak, barre-
rak jaitsita, pasabidea zeharkatzen hasi ziren. Zorionez, jaieguna izanda, momentu hartan zirkulazio gutxi zegoen, baina udaltzaingoa-
ren lana behar izan zen trafikoa arautzeko.

Auzokideon ustez, gertakari berri hauek age-
rian utzi dute "gune horren arrisku larria" eta geltokiaren lurperaketari behingoz ekiteko erakunde publikoen konpromiso eza salatu dute berriro.

Garabiko ibilgailuen udal gordailua Zorrotzako Muturrean kokatuko da

Igor Gutiérrez

Urrian, Udalak Auzo Elkarteari jakinarazi zion garabiko ibilgailuen gordailua Zorro-
tzako Puntara mugituko zutela. Orain, isun batengatik atzemandako ibilgailuak edota abandonatutakoak, Zorrotzaurrera eramaten dira. Aldaketa horrek gurean izan lezakeen

eraginaz kezkatuta, Auzo Elkarteak Udalari galdetu egin zion eta honek iazko datuekin erantzun: orotara 5430 ibilgailu jaso zituzten, hots, egunero 15-bat.

Gordailua antzinako hiltegiko eremuetan ko-
katuko da eta Udalak behin-behinekoa dela adierazi du.

cafetxinbo****

Espezialitateak:

Tapak eta errazioak
Kanapeak



Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74

SAZ
OKINDEGIAK

**Zorrotzako
labea**

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepeidea, 34
Tfno. 94 441 09 71
Zorrotza - 48013 BILBO

PICOS
burdindegia

Zorrotza Kastrexana, 7
Telefonoa: 94 441 64 86

MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zalburda estrata, 5 - atzea
ZORROTZA
48013 BILBO

MADNESS

Tel. 94 441 62 75

Muturrean egonleku eta bizikidetzarako espazio berria inauguratu du Udalak

Parke honek 20000 metro koadroko azalera du. Umeentzako jolaslekuak, gimnasia egiteko gunea, ariketa fisikoak eta mantentzekoak egiteko, oinezko bideak, bidegorria eta txakurrak solte ibiltzeko espazioa ditu. Ehun bat zuhaitz ere landatu dira.



Zorrotz Morrotz

Aisialdirako, egonaldietarako eta bizikidetzarako gunea berri hau inauguratu zuen urriaren 16an Juan Mari Aburto Bilboko alkatea. Egun berean, kiroldegian egindako obrak ere bisitatu zituen alkatea hainbat zinegotziren laguntza zuela.

Ingurua dinamizatuko duen ibaiertzeko parke berria eguteren egongo da. Hiri-altzariak jarri dira eta Bide Berdeko bideskekin lotuta dago, baita Fray Juan kalea eta Montevideo etorbidea eta Olabeagako pasealekuarekin ere. Hala berean, txakurrak solte ibiltzeko lekua ere egin da, gailuekin euren ariketak egin eta jolastu daitezten. Umeentzako parkea ere egin da eta gimnasiarako gunea ere bai, ariketa fisikoak eta mantentzekoak egiteko. Dauden kirol ibilbideekin lotuko da alde hau.

Bestalde, lehen zegoen trenbidearen linea errespetatu da, katenariaren zutoinak kale-argi bihurtu dira; lehengo garaiera-galiboak,

baskula bat eta orratz-aldagailu bat, errailak eta trabesak ere apaingarri moduan gorde dira.

Clara Campoamor kaletik duen sarbidean ere hobekuntza bat egin da. Zorrotza auzotik etorrita dagoen sarbide nagusia da eta trenbidearen azpian dago. Ingurua hobetzeko eta segurtasuna handitzeko argi gehiago jarri dira tunelean; eta babes-barandak eta ibilgailuen bidearekiko altu dauden espaloietako hormak hobetu dira.

Bilboko Udalak 950000 euroko inbertsioa egin du parke berri honetan. Aurrera jarraitzen dute inguruko hobekuntzek. Egingo den hurrengo lana Barinaga kalea berriro urbanizatzea izango da. Lan hori Auzokide Planaren barrukoa da.


Zorrotzako Muturra jolasarako espazio irekia izatea nahi du Udalak, kirol egitea ingurua dinamizatzeke funtsezko ardatza izanik. Horretarako, Bilboko Udalak aire zabaleko jardueren eta kiroldegi edo Azoka parkeko instalazio estalietako jardueren arteko oreka lortu nahi du.

Futbol-zelaia

Bilboko Udalak Zorrotzako udal futbol-zelaian ere egin ditu lanak, Bilbao Kirolak era-kundearen bitartez. Belar eta ate berriak jarri ditu; ureztatzeke, ebakuaziorako eta urak biltzeko sistemak hobetu ditu, baita saneamentu-sarea ere.

Lan hauek uztailen hasi eta bi hilabete iraun dute. Bilboko Udalak 170300 euro inguruko inbertsioa egin du.

Ignazio Miranda



La teja taberna Ignazio Miranda auzuneko sarreran



Etalde hau 1924 urtean eraiki zen langilen kooperatiban, “etxe merkeak” esaten zautsien udalak itzitako lur eremu baten langilen artean (naz eta arkitektoa, aparejadorea eta abar planoak egin eta lanak jarraitu) egin zirelako. Lurren jabea izan zan izena itzi zeutsona auzoari. Lau ilaratan banatute dauz etxeak eta Zorrotza Kastrexana errepidea eta aldapeta kaleen artean kokatzen da, Etxebarria etxaldearen ondoan. Bere garaian sarbidean zegoen La teja taberna, oso ospetxua. Igoera horretan Saninazio jaiak egiten ziren, baina hori beste baten kontatuko dogu...

Zorrotzako argazki zaharrak dituzu?
Zure argazkia Zorrotz Morrotzen agertzea nahi duzu??
Bidaliguzu e-mail bat **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora gaiaren laukian “behin batean” jarritz. Mila esker!



**EUSKAL
PRESO ETA
IHESLARIAK**



ETXERA

**GORA
HERRIA!**

**★ independentzia!
SOZIALISMOA!**



ASKABIDE
kultur elkartea
Zorrotza

“Auzokoa izatearen harrotasuna oso balore positiboa da eta oso nabarmena da Zorrotzan”



STELLA MARIS GARCÍA

Jaioterria: Argentina

Noiztik: 2003tik Uribarrin.

Apirilatik Zorrotzan

Adina: 54 urte

Labidea: Pertsona migratzaileen aholkularia

Argentinan jaiotako Stellak bakarrik behar izan ditu 5 hilabete Zorrotzara bizitzera etorri eta Auzoko Taldeen Koordinakundean parte hartzeko eta Zorrotzako jaietan egin zen I. Kulturarteko Topaketa antolatzen languntzeko.

Testua: Naroa Peña eta Zuriñe Vila

Noiz eta zergatik erabaki zenuen Zorrotzara etortzea?

2001. urtean Buenos Airesetik Zamorara joan ginen nire alaba eta biok. Baina bertan nire itxaropen profesionalak betetzea zaila ikusten nuen Bilbon jendea ezagutzen nuenez eta hemen nire alor profesionalen irtenbide gehiago ikusten nituenez, Bilbora etortzea erabaki nuen. Hori zela eta, 2003an Uribarrira bizitzera joan ginen eta han egon ginen 2018ko apirila arte. Data horretan alokairu sozial bat eskaini zigten Zorrotzan eta ni alokairu sozialen alde nagoenez, nahiz eta Uribarri uztea pena handia eman, Zorrotzara etortzea erabaki genuen. Nik Bilboko erdialdean lan egiten dut eta nire alabak EHUk ikasten du, beraz, Zorrotza ondo datorkigu gure eguneroko beharrak egiteko.

Zer da hemendik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?

Gehien gustatzen zaidana da, orokorrean, Bilbon auzoek duten nortasuna. Niretzat oso balore positiboa da auzo desberdinetako bizilagunek duten auzokoa izateko ohorea; Zorrotzan hain zuzen ere, oso nabarmena dela uste dut. Bestalde, gutxien gustatzen zaidana da Zorrotzarekiko egiten den gutxiespena erakunde publikoen aldetik.

Argentinako zeren falta sumatzen duzu sakonon?

Gehienbat familia da faltan sumatzen dudana. Baina hainbeste urte hemen egon ondoren, nire egunerokotasunean ez dut ezereen falta sumatzen. Hemen Argentinako lagun asko ditut eta horrek ere nire herrialdearekiko lotura indartzen du. Gainera, urte eta erdian behin gutxi gora-behera joaten naiz Buenos Airesera familia bisitatzera.

Zure alabak euskaraz ikasi du, zuk euskaraz hitz egiten duzu?

Nire alabak D ereduari ikasi du txikitatik, niretzat oso garrantzitsua zen berak euskara ikastea, bere etorkizunerako oso positiboa ikusten nuelako. Baina nik, nahiz eta euskara ikastea gustatuko litzaidakeen, ez dut egin. Helduok, euskara ikasteko laguntza ekonomiko urriak ditugu. Orain nik euskara ikastea erabakiko banu, klaseak ordaindu beharko nituzke eta ez dira merkeak. Hori da, nire ustez, euskalduna ez den herrialde batetik etorritako heldu askok euskara ez ikastearen arrazoi nagusia. Euskara ikasteko erraztasun gehiago egon beharko liratekeela uste dut.

Etorkizunean Argentinara bizitzera bueltatzeko asmoa duzu?

Ez. Bizitzak buelta asko eman ahal ditu eta batek daki, baina printzipioz ez daukat buruan Argentinara bueltatzea. Bilbo nire hiria bezala sentitzen dut, oso gustura nago hemen, proiektu desberdinetan parte hartzen dut eta hemen daukadan bizimodua ez nuke aldatuko.

Hemengo bizimodura egokitzea gogorra egin zitzaien?

Oso desberdinak dira hango eta hemengo bizimodua. Adibidez, hemen dauden zerbitzu sozialak ez daude han. Hemen askoz lasaia go bizi naiz, segurtasun handiagoa dago... Bestalde, ni Argentinan beti etxe batean bizi izan naiz eta hona heltzean pisu batean bizitzera sartu behar izatea pixka bat gogorra egin zitzaidan hasieran.



Auzoan egiten diren ekintza desberdinetan parte hartzen duzu?

Bai. Zorrotzara etorri bezain pronto bertako pertsonak ezagutzeko irrikitan nengoen eta facebooken Zorrotzako talderen bat bilatzea bururatu zitzaidan. Nire sorpresa handia izan zen hainbat talde zeudela eta bat-batean Taldeen Koordinakundearen berri izan nuen eta Zorrotzako jaietarako l. Kulturarteko topaketa prestatzen zebiltzala ikusi nuen. Hori ikustean argi neukan bertan parte hartuko nuela eta deitutako bilerara joatea erabaki nuen. Pertsona interesgarri asko ezagutu nituen eta oso gustura egon naiz, beraz, proiektu gehiagotan parte hartzeko prest nago. Batez ere, elkarbizitza proiektuak arrera eramatea gustatuko litzaidake.



Pintxo askotarikoak, hamburgeresak eta sandwichak
Bazkariak eta afariak (erreserbatu behar da)
Aroa onak, konbinatu gozoak, Futbolak, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao



Vía gráfica

viagraficazorrotza@gmail.com

Disenúa

NAGORE, ITSASO ETA YAIZA EUSKARABENTURA EKIMENEAN

Euskararen sustapena eta harreman sozialak bat eginda

Aurtengo uztailan burutu da Euskarabentura proiektua. 16-17 bitarteko ehundaka gaztek Euskal Herri osoko bira egin dute euskararen erabilera sustatzen. Haien artean Zorrotzako hiru neskak parte hartu dute. Euren esperientziei esker hobeto ezagutu dugu ekimena.



Euskarabenturan parte hartu zuten bilbotar guztiak

Testua: Ibai Barrios

Argazkiak: Nagore Garitagoitia, Itsaso Gálvez eta Yaiza Franco

Nagore Garitagoitia, Itsaso Gálvez eta Yaiza Franco 16 urteko hiru neska zorrotzar ditugu. Uda honetan, uztailan hain zuzen ere, Euskarabentura izeneko proiektuan parte hartu dute. Auzoko institutuan antolatutako hitzaldi bati esker ezagutu zuten proiektua. Bi antolatzaile (horietako bat espedizioan “xerpa” moduan ezagutu zutena) bertara joan ziren ekimena aurkezteko. Izena emateko, datu pertsonalez gain motibazio-gutun bat eta aurretik proposatutako gai batzuk aukeratuta idazlana, abestia edo

antzerki bat burutzeko eskatu zieten. Itsasok, adibidez, Zorrotzako historiari buruzko bideo bat egin zuen.

Uztailaren 1ean hasi eta 31n bukatutako abentura honetan hainbat izan dira bizi izan dituzten egoerak. Kontuan hartu behar dugu oinez ia 500 kilometro egin dituztela zazpi herrialdetan zehar, Maule-Lextarretik hasi eta azken geltokia Getxo izanik. Esperientziari buruz galdetu diegunean Nagorek “ikaragarria” bezain “gogorra” izan dela aitortu digu. Hirurek bat egin dute hasierako egunak gogoragoak izan zirela, batez ere eramaten



zuten pisuagatik eta oinetan atera zitzaizkien baben erruz. Dena den, arratsaldeetan (etapa amaitzean) euskarari buruzko hitzaldiak zein tailerrak eta hizkuntzaren erabilerrari buruz hausnarketa egiteko topalekuak zituzten. “Egunak oso biziak ziren, eta inoiz ez geneukan aspertzeko momenturik. Baina, aldi berean beti zegoen erlaxatzeko gunerik” kontatu digu Yaizak. Bestalde, Itsasok lesio baten ondorioz abentura utzi behar izan zuen baina azkenengo lau egunetan itzuli zen. Nagorek kontatu digu egunerokoan ditugun gauzak baloratzeko balio izan zaiola, hala nola ohea, kotxea... Denetarik bizi izan dute ikusi daitekeen moduan.

Bakoitzaren esperientzietatik kanpo, oro har euskararen erabilera sustatzeko eta hizkuntza tresna hartuta harreman sozialak bultzatzeko aberasgarria izan da. Euren hitzetan, esperientzia honen bidez ikusi dute nolakoa den euskararen erabilera herrialdeka. Nafarroako hegoaldean, adibidez, gutziz erdaldu-nak direla ikusi du Nagorek eta horrek asko

tristetu du. Baina, halere, aurretik uste baino jende gehiagok erabiltzen duela ere ikusi du. Itsasok: “hizkuntzaren egoera oso txarto dago leku batzuetan ez duzulako inoiz eus-kara entzuten eta pena bat da oso polita eta zaharra delako”.

Gure auzoan euskararen egoera nola ikusten duten ere galdetu diegu eta asko dagoela aurreratzeko esan digute. “Oso zaila da Zorrotzan norbait euskaraz egiten entzutea. Ez da erabiltzen. Espedizioan gure lehenengo hitza euskaraz egiten irakatsi ziguten; beste horrek euskaraz hitz egiten jakinez gero, saiakera egiteko. Dendetan, adibidez, formula hori erabiltzen hasi naiz” azpimarratu du Nagorek.

Azkenik, Euskaraldian parte hartzeko prest agertu dira hirurak eta institutuan ekimena bultzateko aurkezpen txiki bat antolatzen dabiltza ahalik eta jende gehiena erakarri eta parte hartzeko. Finean, Euskarabenturan ikasitakoa egunerokotasunean erabiltzea dute helburu.



ZORROTZA HERRIGINTZAN



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefonoa: 94 465 46 15
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)

IÑIGO RAMÍREZ DE LA PISCINA, NOELIA BRINGAS, ROSA DELGADO, ASIER HOLGADO ETA FERNANDO RAMOS:

Ahobiziak eta Belarriprestak

Bost lagun elkarrizketatu ditugu ale honetan. Batzuek oraindik lotsa apur bat dutela euskaraz hitz egitean aitortu dute. Beste batzuek euskaraz ematen dute lehenengo hitza aspalditik... Baina bostek, bakoitzak bere Belarriprest edo Ahobizi txapa aldean, hilaren 23an hasiko den Euskaraldia ekimenean parte hartuko dute: Bi ahobizi eta hiru belarriprest. Ariketa erraldoi honetaz zer espero duten, nola hurbildu ziren euskaldun mundura, eta beste hainbat gauza komentatu dugu haiekin. Eta zu zer izango zara? Ahobizi ala Belarriprest?

Testua eta Argazkiak: Aitor Marín



IÑIGO RAMÍREZ DE LA PISCINA:

Ahobizi. Euskara irakaslea. 38 urte.

“Elkarrizketa mixtoei beldurra galtzeko baliogarria izan behar du Euskaraldiak. Normaltasunez hartu behar da bata euskaraz eta bestea erdaraz aritzea”

Noiz hasi zinen euskara ikasten?

Ni arabarra naiz, Gasteizkoa. Aitaren partetik familiak galduta zuen euskara eta amaren familiakoak Burgosekoak ziren eta ez zekiten euskaraz. Txikitako udaleku batzuetara bidali ninduten gurasoek eta han euskaldunak eta erdaldunak zeuden. Hamabost egun izan ziren eta hamabost egun haietan “fitxaje” gehienak, lagun berri gehienak, euskaldunen artean egin nituen. Zentzu horretan nahiko kaltegarria izan nintzen, denok erda-

raz egin genuen nire erruz, baina gustatu zitzaidan. Konturatu nintzen beste mundu bat bazegoela. Familian eta eskolan ez zuten egiten baina beste mundu horrek liluratu ninduen, eta adina bete nuenean matrikulatu nintzen.

Nolakoa izan zen euskara ikasteko bizipena? Denbora asko behar izan zenuen?

A eredukoa nintzen eta hirugarren urratsean hasi nintzen euskaltegian. Nahiko azkar

egin nuen eta unibertsitatera heldu nintze-
nean, aukeratu behar izan nuen euskaraz
ala erderaz, eta euskara aukeratu nuen.
Oraindik ere ez nuen oso ondo egiten, eta
han finkatu nuen. Karrerako lagun guztie-
kin, gipuzkoarrak batzuk, bizkaitarrak bes-
te batzuk... hor finkatu nuen. Bilbora etorri
nintzen bizitzera eta hor hasi nintzen zeharo
euskaraz bizitzen.

Bilbora etorri zinela euskaraz bizi ahal izateko entzun dizugu noizean behin...

Gasteizetik ihes egin behar izan nuen. Han ez nuen posible euskaraz bizitzea. Harreman gehiegi nituen erdaraz, eta harreman horiek ez nituen apurtu nahi. Bilbon harremanak

berriak ziren eta nik aukeratu ahal nuen eus-
kaldunengana jotzea. Gasteizen ez. Han nire
familia eta lagunekin egon behar nuen eta
han harremanak erdaraz izan behar zuten.

Euskaraldian parte hartuko duzu, jakina

Bai, ahobizi izango naiz. Erremedio gutxi daukat nik.

Zer espero duzu Euskaralditik?

Jende askok elkar identifikatzea, adibidez
hemen auzoan jende berria identifikatzea
eta, batez ere, elkarriketa mistoei beldurra
galtzea. Ematen du ezin dela batuk euskaraz
eta besteak erderaz egin. Espero dut horre-
tan nolabaiteko normaltasuna lortzea.

NOELIA BRINGAS: Belarriprest
Hezitzailea. 33 urte.

“ Alabarekin euskaraz egiten hasi naiz, eta etorkizunean euskaraz bizitzeko asmoa dut ”

Noiz hasi zinen euskara ikasten?

Txikitan eskolan hasi nintzen euskara ikas-
ten, baina A eredu. Beraz, eredu horre-
tan, astean 4 orduz, ezin euskaldundu. Ama
galiziarra daukat eta aita Kantabriakoa. Nire
inguru osoa erdalduna zen eta euskaraz
egiterik ez neukan. Euskaltegian hasi nin-
tzen duela sei urte. Haurdun geratu nintzen
eta utzi nion euskara ikasteari. Orain berriro
eman dut izena, baina autoikaskuntzan. Ala-
barekin gazteleraz egiten dut askotan, baina
gero eta gehiago egiten diot euskaraz, eta
baita senarrari ere.

Eta zerk bultzatu zintuen euskalduntze prozesuan hastera?

Euskara nire hizkuntza dela uste dut. Oso
gustukoa dut. Ez dut beharrezkoa lanerako,
baina etorkizunean euskaraz bizitzeko as-
moa daukat.



Zer espero duzu Euskaralditik?

Beldurra eta lotsa kentzea espero dut. Orain
lotsa handia ematen dit beste pertsona bate-
kin euskaraz egiteak. Horretarako baliagarria
izango zaidala uste dut. Lanean txapa era-
manda batzuk nirekin hitz egitera animatuko
direla uste dut. Batzuetan euskaraz egiten
ausartzen hasia naiz, baina oraindik bertigo
handia daukat, gehienak euskaldun zaharrak
baitira, eta ulertzea ez da batere erraza.

ROSA DELGADO: Belarriprest
Ogi saltzailea. 40 urte.

**“Lanean nigana jende
gehiago euskaraz
etortzea espero dut”**



ASIER HOLGADO: Ahobizi
Sukaldaria. 39 urte.

**“Lan bila hasi nintzen
euskara ikasten...
Lagun berriak eta
kultura berri bat eman
dizkit euskarak”**



Noiz hasi zinen euskara ikasten?

Bi urtetatik Gordexolan bizi izan nintzen eta hango ikastolan ikasi nuen euskara. Nire gurasoak Cadizetik etorri ziren hona, eta 9 anaia-arreba ginen etxean. Ni gazteena naiz, eta euskara ikasi duen bakarra. Etxea eta inguru osoa erdalduna zen, eta ezin euskaraz egin. Duela hogeitazero Zorrotzara etorri nintzen, nire senarra hemengoa baita. Eta hemen lanean batzuetan euskaraz egiten dut, batez ere ume txikiekin. Batzuek badakite euskaraz ulertzen dudala, baina kasualitatez.

Euskaraldian parte hartuko duzu?

Bai, Belarriprest rola aukeratu dut.

Zer espero duzu Euskaralditik?

Egunero-egunero jende gehiagorekin euskaraz hitz egiteko aukera gehiago izatea. Ziur nago jende askok ez didala euskaraz egiten erdalduna naizela pentsatzen dutelako.

Asier, zu euskaldun berria zara, eta duela gutxi hasi zinen euskara ikasten, ezta?

Euskararekin izan nuen lehenengo kontaktua txikitari izan zen, baina oso azaletik. Serio hasi nintzen duela hiru urte. Hirugarren urrutsian hasi eta euskaltegiaren klaseak hartuta, barnetegietan egonda eta trinkoak eginez, EGA titulua ateratzea lortu berri dut.

Eta zerk bultzatu zintuen euskara klaseak hartzera?

Hasieran euskara ikasten hasi nintzen Osa-kidetzan sartzeko oposaketak prestatu nahi nituelako, eta ezinbestekoa zen euskara horretarako. Euskal munduan sartu ahala, kultura berria, oso jende jatorra eta lagun berri asko ezagutu ditut. Izan ditudan irakasle eta ikaskide guztiekin oso gustura ibili naiz eta euskararikiko neukan ideia aldatu da.

Euskaraldian parte hartuko duzu?

Bai, Ahobizi izango naiz.

Zer espero duzu Euskaralditik?

Lehenik eta behin, jendea armairutik ateratzea behingoz. Eta hori lortuta, aliantza berriak lortu euskaraz egin ahal izateko lagun berriak eginez.

FERNANDO RAMOS: Belarriprest
Elektrikaria. 58 urte.

**“ Leonetik heldu
nintzen 8 urte nituela.
Tokiko hizkuntza
jakin behar dela uste
dut, eta horregatik
gaztetan hasi nintzen
euskara ikasten ”**

Noiz hasi zinen euskara ikasten?

Ni Leonen jaio nintzen baina zortzi urterekin gurasoekin batera Bilbora etorri nintzen. 18 urterekin edo hasiko nintzen euskara ikasten. Modu naturalean hartu nuen. Alemania edo Frantziara joan izan banintz, alemanieraz edo frantzeseraz ikastera behartuta egongo nintzatekeen... Kanpotik heltzean tokiko hizkuntza ikasi behar dela uste dut. Herriko hizkuntza ikasi behar nuela uste nuen eta horretan hasi nintzen.

Zer eman dizu euskara ikasteak?

Herriarekiko kontzientzia, eta erdalduna nintzenean niretzat arrotza zen kultura berri bat ezagutzea. Eta oso gustura hartu dut. Baina hori bai, esfortzu ekonomiko handia suposatzen du, eta hori gaitzitu behar dela uste dut. Ez dut ulertzen Eusko Jaurlaritzarentzat eus-



kara ez izatea premiazko asuntua. Hizkuntzarik gabe ez dago herririk. Zergatik ez da euskara dohainik eskaintzen? Irakasle pila bat langabezia dago eta enplegua sortzeko ere baliabide ederra izan daiteke... Bai, euskaraz dohainik ikasteko aukera egon beharko luke, diru publikoarekin ordainduta. Beharrezkoa dela uste dut.

Euskaraldian parte hartuko duzu?

Bai, Belarriprest rola hartuko dut.

Eta zer espero duzu Euskaralдитik?

Jende berriarekin euskaraz aritzea espero dut. Orain beldur diogu euskaraz egiteari jende askorekin, ez baitakigu euskaldunak diren ala ez. Ekimen honekin euskaraz dakien jende gehiago ezagutuko dudala uste dut.



*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-baztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es

*Regalos
Omega*

oparidenda

Fraí Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza

94 482 03 66

www.omegadetalles.com

**TABERNA
INDARRA**



Abaro estrata, 10

Azaroak 25 igandea

Goizean. Askabide Herriko Taberna.
PERRETIXIKO ERAKUSKETA ETA DASTAKETA

Azaroak 30 ostirala

19:00 El 10 de Fray Juanetik hasita.
TRIKI-BERTSO POTEOA
Ondoren:
BERTSOAFARIA. Luna jatetxean.
MIREN AMURIZA + JULIO SOTO

BERTSO AFARIA

AZAROAK 30
ostirala

LUNA JATETXEA
21:30ean



Miren Amuriza eta Julio Soto

21:00 Gaztetxean.

KONTZERTUA:

DR. CALYPSO + THE TOASTERS

Sarrera: 12 / 15 €



Abenduak 1 larunbata

EUSKARALDIA EGUNA ZORROTZAN:
Egitaraua ez dago oraindik zehaztuta.

Deialdia kartelen bidez eta sare sozialetan zabalduko da. **Adi deialdiari!**

Abenduak 15 larunbata

20:00 Gaztetxean.

KONTZERTUA:

PEPE BAO

Sarrera: 10 €

Zure elkartearen ekitaldiak ZMeko hurrengo agendan (urtarrila - otsaila) iragartzeko, **zmorrotz@gmail.com** helbidera idatzi urtarilaren 4a baino lehen.

Oilasko errea



Osagaiak: Oilasko garbi bat, gatza, piperbeltza, ardo zuria, ura eta garagardoa.

Labea 180 gradutan aurreberotzen da. Oilaskoari gatza eta piperra botatzen zaizkio, eta litro laurden aur, litro laurdena ardo zuri eta litro erdia garagardoz osatutako nahasketa batekin suezitu behar da hamar minuturik behin, lehortzen utzi gabe, ordu eta erdiz. Denbora hori igarota, labea amatatuko dugu eta 10 minutuz jalkitzen utziko dugu. Zaituta eta herriko piperrekin eta patata frijituarekin batera zerbitzatzea gomendatzen dugu.

Zailtasun maila: Erraza

Prezioa: 0,40 € + edaria

ROCKET TAVERN

Ordutegia:

Astelehenetik ostegunera: 6:00etatik 23:30era

Ostiral eta larunbatetan: 7:00etatik 1:00era

Igandeetan: 7:00etatik 23:30era

Frai Juan, 8. Tel. 94 655 68 98



Doinua:

Zenbat pertsu alde.

Mundu petral honi nik

nola hartu tamaina

triskantzarik triskantza

goaz alajaina!

aho asko gorrotoz

sustatuz destaina

politika bihurtu da

eremu labaina

optimismoz nahi nuke

gaur busti mingaina

hitx goxorik ez dauka

mihi honek baina

Asier Urkiza



Aramotz.

Iñaki Irasizabal. Elkar. 2018. 112 orrialde



Elkar ezagutzen ez duten neska bik, Saioa eta Edy, topo egiten dute pisu batean droga erosten. Aurretik pentsatu gabe, zoritxarreko gertakarien katean, haiek bateko saltzailea hil egingo du, eta, tratatzaileen mendeku ziurraren beldurrez, biek ihes egin beharra izango dute. Saioak urte batzuk lehenago psikiatriko bateko egonaldian ezagututako Landerri deituko dio, mutil isil eta misterioitsua. Landerrek lagundu egingo die, eta mendialde bakarti batean galdutako txabola ezkutu batera eramango ditu, gauzak baretu arte. Bere bakardade eta edertasunean, aldi berean paradisu eta

infernu bihurtzen zaie naturaren erdiko paraje ahaztu hori: hirurak ere elkarri begira daude, mesdantzaz, jokoa bere aldera eramango duen karta ezkutua noiz aterako zain, thriller psikologikoaren eta terrorezkoaren osagaiak batzen dituen nobela labur baina trinko honetan.



Eraso:

Inoren lurretan (Autoekoiztua) 2018



Urteen poderioz euren soinua egonkortzen ikasten dute taldeek, edo hori behintzat da beraiengandik espero dena. Irrati formuletatik gertu betiere, underground puntu horretan mugitzera heldu da Zarauzko taldea. 22 urte eta oraindik asko esateko. Ez dute estilo finko batean kokatzeko asmorik eta ideia hori abiapuntutzat hartuta 6 abestiz osatutako "Inoren lurretan" EPA dakarte besapean. Metala oinarri, baina

rocka nahiz hardcore ukituak ere entzun daitezke azkenengo lan honetan. Aitortu behar dut: hasieran puntua bilatzea kostatu zitzaidan, baina entzun ahala geroz eta gehiago gustatzen zaizun horietakoa da. Ariketa hori entzulearen esku geratzen da, noski. Soinu naturala eta asko prozesatu gabekoa lortu du laukoteak. Superproduktio bat egitea ez dator bat taldearen filosofiarekin. Ez dute behar. Lankidetzaren berezi moduan Kokein taldeko Zaloak ederi abestu du "Hodei beltzak" izeneko abestian. Oraindik merezi duten onespina lortu ez duten taldeen zerrendan sartuko nituzke dudarik gabe.

Ibai Barrios

ROCKET TAVERN



Plater konbinatuak,
hanburgesak,
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 - Tel 94 655 68 98

Iragar zaitez

ZM

ZORROTZ MORROTZ
aldizkarian!

Euskara sustatu
Zorrotzan!

Tarifak eta informazioa:
zmorrotz@gmail.com

13 urte



ZORROTZA F.C.
kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!



Taberna AiTOR

José eta Juan Carlos

Soka kalea, 11. Zorrotza
Tel. 94 482 07 96

Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidaliguzu zure artikulua zmorrotz@gmail.com helbide elektronikora gaiaren laukian "iritzia" jarrita. Eskerrik asko!



Mina

Mina dugu aldarri nagusi. Mina kausitzen diogu edozeri, mina edonon.

Hizkuntzarenganako mina, hizkuntzarekikoa, hizkuntzagatik, hizkuntzatik eratorritakoa, hizkuntzaz mina. Hitza mina. Mihi minberatuak geureak! Ahoa ireki orduko mina, belarrira mina, xuxurletan mina, hitz leun zein gogorretan mina. Min erabatekoa, gorena, galanta, latza. Berben min erantsia medikuarenean, min erauntsia autobusean, garezurra alderik alde zulatzen duten gezi pozoietsuen gisan. Min bortxazkoa, edozein muturrekok baino ubel handiagoak eraginez. Ubel linguistikoak daramatzagu bizkarrean. Kuadrillan mina, tabernari baten zartadak mina, ahoan ze mina, mingain ezinduak garrasi. Aiztoa kamustuta, ahala gutxituta, minez leher egin beharrean dago hizkuntza.

Baina mihiak oroimenari eusten dio, nonbait. Ez du etsi nahi. Txakur errabiatuaren antzera datxekio berea denari. Mihiak hizkuntza nahi, horretarako jaio baita. Dastamen-papilak euren ongarrria bereganatu guran dabilta, nerbioek minaren kontra darraite borroka amorratuan. Bada esperantzarik, kriseilua leize ilunaren amaieran. Azkenerako atsedeen-gune bat, kez-

karik bako lurralde amultsua, behingoagatik mihia askatzeko tokia. Hizkuntza bere kasa ibiltzeko larre zabala. Askatasuna.

Askatasunak ez luke hitz antzu bat izan behar, baizik eta eguneroko praktikan egiaztatzen den hamaika adierako berba. Askatasuna gehiago gauzatu behar ez ote dugun, bere abstrakzioetik lurrera ekarri, geure bizitzetan txertatzeraino. Hizkuntzaren aferan ere bai. Euskaraldiak horixe bera dakarkigu, mihi lotuei uhalak askatzera dator, mina zertxobait arintzera. Izan ere, askatsuna minarentzat sendagarri egokia da, zauriak goxatzen lagundu dezake. Gure hizkuntzan ezin bizi horrek eragindako mina ez digu guztiz erauziko, baina behin-behineko plazeboa izan liteke. Eta hori baino askoz gehiago, zer esanik ez. Konplexurik gabe plaza publikoan agertzeko aukera, besteak beste. Mihiei, lehen esan bezala, uhalak askatzea, barbaro etengabea astindu daitezen.

Zenbaitek esango dute euskarak ez duela epe mugarik, bizitza osoan egin behar dela eta ez soilik bi daten arteko denbora mugatua. Arrazoi dute. Horrek ez du esan nahi, ordea, aldizkako plazerei uko egin behar diegunik. Kontrakoa esango nuke, mihi sufrituok badugula noiz edo behin mina goxatzeko eskubidea. Bejondeigula.

Asier Urkiza

#nikemandutizena
#Euskaraldia

NIK DAGOENeko EMAN DUT IZENA EUSKARALDIAN

eta zuk?

Izena emateko: www.euskaraldia.eus



EUSKARAREN ERABILERA EZ SEXISTA



Pasa den alean publizitate sexistak berdintasunari egiten dion fabore makalari buruz hitz egin genuen. Honetan, beraz, publizitateak bete ditzaken jardunbide egoki batzuk presentatuko ditugu.

Beti ere, errazena emakume eta gizonen kopuruak orekatzen hastea da. Baina zein aktibitateetan jarduten duten batek eta besteek ere kontutan hartu beharko da:

- Emakume zein gizonak zaintza lanetan agertu.
- Emakume eta gizon izateko aniztasuna islatzen dituzten irudiak erakutsi eta es-

tereotipoak saihestu.

-Emakumeak fisikoaren garrantziarekin eta gizonak lanbide edo inteligenziarekin erlazioanetzen dituzten irudiak saihestu

- Samurtasuna, errukitasuna, indarra, bosterea, segurtasuna, zaintzeko eta entzuteko gaitasuna... bezalako ezaugarriak bi sexuei egokitu

Genero berdintasunetik haratago, familia mota, bizimodu ezberdin, eta adin, egoera eta arraza ezberdinetakoa pertsonak presentatzea ere gizartearen aniztasunari buruzko pentsaera irekitzeko bide bezala erabili daiteke.

SALAKETA ARGAZKIA



FEVE trenbideko pasabidea berriro ere

Geltokia lurperatu behar delako beste adibide bat bizi izan zen pasa den azaroaren 1ean.

Trenbidea nahiko arriskua ez balitz, barrerak behera gelditu ziren eta kotxeek eta oinezkoek pasatu behar izan zuten trenik etortzekoa zenentz jakin gabe. Noiz arte jarraitu behar dugu auzokideon segurtasuna kolokan jartzen? Istripu gehiagorik behar da behingoz hau konpontzeko?



BAR VENECIA

Espezialitateak:
Kafea, tortilla, tortilla beteak
eta bestelako pintxoak

Abaro estrata 10

AUPA ATHLETIC

AUTO ESKOLA KAIKU



Zorrotza Kastrexana, 1
Tlfno: 94 427 88 10

ARIN GRAF, S.L. INPRENTA

Zalbidea estrata, 13-2.
48013 ZORROTZA - Bilbo
Tel/Fax: 94 441 38 23
info@aringraf.com

Alkatea Zorrotzan

Pasa den irailaren 29an Juan Mari Aburto alkate jaunaren bisita izan genuen auzoan. Behin baino gehiagotan egon da, guztiok gogoan ditugun egoera latzetan ere, baina ez-ohiko gertakari gisa auzotar askorengan ikusmina eta komentario ugari sortu zituen bisita honek. Egun horretan Ogasun zinegotzia eta Barrutiko presidentea den Marta Ajuria, Obra eta Zerbitzuetako zinegotzia den Asier Abaunza eta Gazteria zein Kirol zinegotzia den Oihane Agirregoitia egon ziren berarekin bat auzotarron arazoak arakutzen.

Bisitaren inguruan zurrumurru eta komentario anitz entzun ditugu; zentzu honetan, kritika eraikitzailea denean ongi etorria izaten da, ez ordea doako iraina. Artikulu honek ez du inoren itxura goraipatu nahi, inork ez dezala horrela har, baizik eta egun horretan ia 5 orduko ibilbidean gertatutakoaren inguruan hausnarketa txiki bat egin.

Alkateak galdetu zigunean bisitatu nahi genuen lehenengo zonaldea zein ote zen, ez genuen dudarik izan, aho-batez “La Landa” esan genuen. “La Landa” Zorrotza da, beraz Bilbo, eta ezin dugu onartu ez hiri bezala ez gizarte bezala horrelako lekuak oraindik existitzea, are gutxiago gure auzoan. Han gertatutakoa Berlangaren komediarik hoberenetan ere (drama bat izango ez balitz) ezin da imajinatu: ijito multzo bat jaustear dagoen eraikin bateko leihonetatik aldarrikapenak adierazten, aldi berean zinegotziak eta alkatea espaloitik argumentuekin erantzun nahian, oihuak bestetik eta tarteka irain batzuk ere. Baina han egon behar zuen, eta han egon zen arazorik jarri gabe. Bide batez aipatu behar da ez dela lehendabiziko aldia, 4 aldiz behintzat egonda gara berarekin zonaldean.

Hortik Punta Zorrotzako “egonaldi eta elkarbizitzarako gune” berrira abiatu ginen. Parke horrek geroaldi labor batean zonaldea nolakoa izango den islatu nahi du. Oraindik ezezaguna da auzotar askorentzat, eta he-

mendik ezagutzeko gonbidapena egiten dugu, bisitariak ezuste handia hartuko delako.

“La Landa” alde batera utzita, udal politikaroldegia eta futbol zelaia bisitatu genituen. Zelai osoa eraberritu da, eta ehundaka mila euro kostatu den obra honek Zorrotza zein Zazpi Landako futbol taldeek disfrutatu ahal izango dute.

Handik guretzat legealdi honetan auzoan egindako inbertsio eta proiekturik hobere-na bisitatzerantz joan ginen, AUZOKAko lokalak hain zuzen. Auzotar moduan halako proiektu batez harro egon beharko ginateke. Proiektu horrek partaidetza zein komunitate garapena ahalbidetzen ditu eta aldi berean, erakunde publikoek bestelako elkarte eta herri mugimenduekin elkarlanean aritzeko aukera dagoela islatzen du. Horrelako lehenengo esperientzia Bilbon, non eta Zorrotzan.

Febekeo tren geltokitik pasa ostean (gobernu aldaketa Madrilén berriro zorrotzarron kalterako), Mikel Deunaren jaietan murgildurik geundenez, nekazal azokan geldiuene bat egin genuen. Bertan alkateak babarrunak erosten zituen bitartean, hurbiltzen zitzaizkion auzotarrekin berba egin zuen.

Gaur egun hurbiltasuna adieraztea politikan modan omen dago, eta zapatu horretan argi gelditu zen edonor alkatearekin egon zitekeela edozein proposamen edo kexa helarazteko. Askok populismoa dela esango dute, beste batzuek nepotismoa, eta auzotik agertzen ez bada are txarrago, despotismoa. Orduan zein izan behar da alkate baten portaera edo jarrera bere auzotarrekiko?

Erantzun zaila duen galdera hori zabalik utziz, momentuz egun horretan emakume zahar batek alkateari belarrira xuxurlatuz esandako hitzekin geldituko gara: *“Alkate, Zorrotzan oso ondo bizi da, esaiezu ez hitz egiteko hain gaizki Zorrotzaz”.*

*Zorrotzako Euzko Alderdi Jeltzaleko
Uri Buru Batzarra*

Zorrotzako Mendizaleak: maite ditut maite gure bazterrak



Duela 3 urte Gure Lurra Elkartek Bizkaiko Foru Aldundiko eskola kirolak prestatzen dituen mendi ekintzetan parte hartzen hasi ginen. 3 urte hauetan umeok eta nerabeok Bizkaiko toki ezberdinetara joateko aukera izan dugu, urtero 5 irteera egiten dira eta gehienetan mendi tontorretan amaitzen da. Irteera hauek 8 urte baino gehiago dituzten Zorrotzako umeentzat dira; gero, irteeran bertan, Bilboko zein Enkarterriko beste ikastetxeekin elkartzen gara 300 ume inguru.

Irteera hauek hiriguneko umeek naturaz goatzeko aukera eskaintzeaz aparte, Bizkaiko herri eta bazter paregabeak ezagutzeko aukera ezin hobea dira. Irteeretara Gure Lur-rako begiraleak joaten dira normalean, Jose Luis erlojugilearekin.



Irteera guztietan Zorrotzara hurbiltzen da autobus bat eta guztiok batera joaten gara. Normalean txangoek 2,5 euro balio dute eta izena emateko aukera dago Auzoka Komunitate Zentroan.

Urte honetako mendi irteerak hurrengoak izango dira:

Eguna	Irteera	Izena emateko azken eguna
2018/07/10	Punta Lucero (309 m.) Zierbena	2018/09/26
2018/10/21	Babio (583 m.) Amurrio	2018/10/17
2018/11/25	Senderismoa Kortezubin	2018/11/21
2019/01/13	Deabru Atxa (779 m.) Dima	2019/01/09
2019/02/10	Senderismoa Markinan	2019/02/06
2019/03/24	Bastelarra (864 m.) Saldropo	2019/03/20



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK

Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75

Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK

Zorrotza-Kastrexana errep. 75

Telefonoa: 94 442 17 12

**TABERNA
JATETXEA**

**LOS
LEONOS**

Vicente Zabala parrokoa, 16

**Jai-Alai
kafetegia**

Abato estrata, 12
94 490 12 59



Jose

Horrelako ekitaldiak onak dira hiriarentzat, nazioartean ezagunago bihurtzen dutelako Bilbo. Baina uste dut gauza garrantzitsuagoak badaudela bultzatzeko.



Aida

Ondo egon da. Kontzertuetara edonor joan zitekeen eta denontzako positiboa izan dela uste dut.

MTV sariak Bilbon

Horrelako ekitaldiak onuragarriak dira bilbotarrontzat?

Igor Gutiérrez




Mikel

Horrelako ekitaldiek dirua ekartzen dutela entzun dugu, baina ez dago oso argi norentzat den diru hori. Kasu honetan ekintza pribatua zen eta nire ustez ez dira bultzatu behar. Diru publikoa beharrezkoak diren beste gauza batzuetan inbertitu behar da.



Yaiza

Ez dakit zenbat gastatu den horretan, horrelako informaziorik ez baita egon, baina ziur aski gehiegi. Eta adibidez, auzoko jaietarako urtero dirurik ez.



Sarai

Alde batetik ondo dago, baina diru gehiegi gastatu dela uste dut. Horrelako gauzetan gastatzen dena apur bat gehiago neurtu beharko lukete.

Restaurante Arsenio
Tfno. 94 497 10 03
Clara Campoamor, 6
48013 BILBAO

Pintxo askotarikoak
Menu bereziak (enkarnez)
Eguneko menua

amc
diseinua

Diseinu grafikoa:
irudi korporatiboa • web • komunikazioa ...

Kartelak, Aldizkariak, Katalogoak, Folletoak,
Kamisetak, Opari pertsonalizatuak...

www.amcdiseinua.net

Aurrekontuak eta info +: Tel. 657 732 934 • aitor@amcdiseinua.net

Bilbon euskaraz



Bilbao

▶ www.bilbaeuskaraz.eus

!Kasi Mi Kasi!

0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe



CIP ZAPI-LANDA-ZORROZTZOITI HIRI

Pinadia etxaldea, 6. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 48 75 • 📠 94 442 48 75
✉ sietecampas@gmail.com



CIP ZORROZTZA-FRAY JUAN HIRI

Ikastalde etxaldea, 12. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 00 21 • 📠 94 442 00 21
✉ 014159aa@hezkuntza.net



I.E.S.
ZORROZTZA
B.N.I.

San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 439 33 34 / 688 861 374
☎ 94 439 97 41
✉ 015078aa@hezkuntza.net
www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net

EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ

BERTSO AFARIA

AZAROAK 30
ostirala

LUNA JATETXEA
21:30ean



Miren Amuriza eta Julio Soto

MENUA

Hastekoak:

Iberiko taula

Kroketak

Perretxikoak plantxan

Txanpiz betetako bolobana

Bigarren platera aukeran

(izena ematean aukeratu behar da):

Bakailaoa errioxar erara

Lubina plantxan

Luna solomilloa (foie eta idiazabal gaztaz betea)

Entrekota plantxan garnizioarekin.

Postrea

Ogia, ura eta urteko ardoa

15€*

*Izena ematean ordaindu beharko da,
eskuan edo transferentzia bidez

Izena emateko
eta info +:

aeK euskaltegia

944 414 920 / 663 080 976

(Azaroaren 26a baino lehen)

19:00etan. **BERTSO SAIOA:**

ASIER URKIZA eta GUTI

El 10 de Fray Juan tabernan.

OSTEAN: TRIKIPOTEOA

eta **ABENDUAK 1:**

EUSKARALDIA EGUNA:

Adi kartelari

Antolatzailea:



Zorrotzako enjaki, 100000

Laguntzaileak:



Babeslea:



Bilbao
AYUNTAMIENTO

EUSKARALDIA